# Mendearen bukaerako haurren zainketa gipuzkoan

# *El cuidado de los niños en Gipuzkoa a finales del siglo XIX*

P. Gorrotxategi Gorrotxategi

Beraungo Osasun-zentroa, Galtzaraborda etorbidea 67, Errentería.

*Correspondencia:* P. Gorrotxategi Gorrotxategi, Paseo Colón 5, 3º B, 20002 Donostia, San Sebastián.

RESUMEN

*En el presente trabajo se resumen los aspectos relativos a la patología infantil del libro titulado «Manual de Higiene y Medicina Popular»: cuidado del recién nacido, normas de vacunación de la viruela, normas de alimentación e higiene infantil, etc. Dicho libro fue publicado en 1899, tanto en castellano como en euskera, siendo sus autores Martín Aramburu y Manuel Bago, médicos titulares de Deba e Itziar, respectivamente.*

*En los fragmentos transcritos del libro se ha respetado la grafía original del dialecto guipuzcoano en el que fueron escritos.*

*El trabajo se acompaña de varios informes sobre el libro, como los emitidos, por ejemplo, por la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comisión Médica de la Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País y de la opinión expresada por D. Carmelo Echegaray, cronista de Gipuzkoa, así como de la crítica publicada al respecto en el Boletín del Colegio de Médicos de Gipuzkoa.*

PALABRAS CLAVE

*Cuidado infantil; Historia de la Medicina.*

LABURPENA

Lan honek Deba eta Itziarreko Martín Aramburu eta Manuel Bago mediku titularrek euskeraz nahiz erderaz idatzi zuten eta 1899an argitaratu zen «Errico gendeentzat Osasun Legueac eta Medicantzaco Arguibideac» izenburuko liburuan agertzen diren haur-patologiaren alderdiak laburtzen ditu: Jaioberriari buruzko ardurak, nafarreriaren aurkako txertaketaren arauak, haurrei dagozkien higiene eta elikadurari buruzko arauak, etab.

Liburuaren zati transkribatuetan gipuzkeraren jatorrizko grafia errespetatu egin da, erabili zuten euskalkia hura izan baitzen.

Lan honi liburuari buruzko zenbait txosten, iritzi eta argitara emandako kritika erantsi zaio: besteak beste, Gipuzkoako Diputazioarena, Euskalerriko Adiskideen Elkarte Ekonomikoaren Medikuntza Batzordearena, Carmelo Echegaray Gipuzkoako kronikari famatuarena eta Gipuzkoako Medikuen Elkarteak ateratzen zuen aldizkarian agertutakoa, adibidez.

FUNTSEZKO HITZAK

Haurren Zainketa; Medikuntzaren Historia.

## SARRERA

Gipuzkoan, XIX. mendebaldeko azken urteetan, medikuen haurreekiko zainketak azter daitezen, 1899an argitaratutako oso liburu interesgarri batetara jo dezakegu. Gure liburu hau *«Errico gendeentzat Osasun Legueac eta Medicantzaco Arguibideac»* izenburukoa da[1].

Aipagarriak dira, beraz, liburu honen idazleak: Martin Aramburu Estrasulas eta Manuel Bago Aguirre. Biak mediku gipuzkoarrak ziren: Aramburu Deban aritu zen beti lanean; Bago Aguirrek, berriz, nahiz eta hasiera batean Itziarren aritu, 1903an Donostiara joan zen.

Gipuzkoako sendagileen elkarteak egin zuen lehenengo mediku zerrendan, 1899an hain zuzen ere, bi mediku hauek aurki ditzakegu eta Gipuzkoako medikuen artean garrantziren bat bazeukatelakoan gaude, lau urte geroxeago Madrilen antolatutako medikuen bilera batean Gipuzkoakoak ordezkatzera joateko izendatuak izan baitziren[2].

Martin Aramburuk, liburu honetaz gain, medikuntzari buruzko beste lan batzuk ere idatzi zituen. Hauetariko azpimarratu behar den bat honako hau da: «Hiru urteko neskatxa batek sintoma mediku hauek zeuzkan: sabeleko minak, mututasuna, 40 graduko kalentura eta hatz eta lepoaren gogortasuna. Nahiz eta neskak tetanoa zeukala eman, Aramburu heste-zi-

zareak besterik ez zirela konturatu zen eta gaixotasun honi zegokion botika eman bezain laster, gaitz guztiak desagertu zitzaizkion neskari[3].

## LIBURUAREN BERRIAK

Gipuzkoako Diputazioari Aramburu eta Bago Aguirreren liburua erabat interesgarria iruditu zitzaion. Hori dela eta, erakunde honek Gipuzkoako osasun arduradunei ezezik herritar guztiei ere hau irakurtzea gomendatu zien, Gipuzkoako medikuen Elkarteak, adibidez, gomendazio hau batez ere euskaraz hitz egiten zutenei egin zien[7]. Aldundiak liburuaren 200 ale erosi zituen eta berak idatzitako txosten batetan liburu hau interesgarria izateaz gain, euskeraz nahiz erderaz ondo idatzita zegoela irakur zitekeen[4].

Bestalde, Euskalerriko Adiskideen Elkarte Ekonomikoaren Medikuntza Batzordeak beste txosten bat argitaratu zuen. Idazlan honetan esaten zutenez, gaixotasunak ikustarazteko oso liburu baliagarria gertatzen zen eta bertan agertutako azalpen guztiak guztiz errezak ziren ulertzen[5].

Halaber, Carmelo Echegarayk aztertzen ari garen gure liburu hau XVI. mendean bizi izan zen *Luis Lobera de Ávila* higienista ospetsuak idatzi zuenarekin parekatu egin zuen, Echegarayk jakinduria zabaltzea asmatzea bezain inportantea dela gogorarazten baitigu[6].

## LIBURUAREN GAIA

Liburuan medikuntzari buruzko gai guztiak lantzen dira. Haurrei buruzko argibiderik garrantzitsuenak hiru dira: boskarren kapituluko eritasun infekzioso exantematikoak (elgorria, eskarlatina, barizela edo astanafarreria eta baztanga edo nafarreria, azken hau zorionez gaur egun desagertua), hamargarren kapituluko erditze eta jaioberriari buruzko azalpenak eta hamaikagarreneko gai bakarra: umea.

### Jaioberria

Jaioberriari dagokionez, liburuak ematen duen zilborrestea mozteari buruzko azalpena da aipagarriena iruditzen zaiguna:

*«Umeari cilla ebaquitacoan beguirtu behar zayo ongui lotuta daucan, bada au onela-ez bazayo jartzen, erori lezayoque odol corrimentuacilletic, ceña litzaquean chit arraschu aundicoa umeari biciarentzat»*[8].

Geroxeago, egileek hain zabaldurik zegoen zenbait ohitura txar behin-betiko desagertzeko nahian, honako hau aipatzen dute:

*«Ceiñ gaizqui eguiten duten ascoc ume jayoberriari burua luze antzean dacarrenean zapaldutzea eta biribildutzea escu zabalarequin, ori eguiten etorri lezayoque umeari calte aundia cergatic buruzco ezurrac garunac estutu lezatezquen»*[9].

### Eritasun infekzioso exantematikoak

Lehen erran dugun bezala, 5. kapituluan gai hau tratatzen da: hasieran, eritasun infekzioso exantematikoen arteko konparazio taula bat agertarazten (elgorria, eskarlatina, barizela edo astanafarreria eta baztanga edo nafarreria) eta bigarren partean baztangaren kontrako txertoaz hitz egiten (noiz eta nola jarri behar den edo ea onuragarria den, esate baterako). Hauexek dauzkagu azalpenak:

*«Udaberria eta udazquena dira urte sasoiric onenac chertatzeco sei illabete cumplituta dauden umeac; bañan alaz gueiaz ere lecu batean naparreiya zabaltzen asi ezquero, edoceiñ denboretan sartu liteque chertua naiz eta bai eta ere ume jayo berriari»*[10].

### Haurren zainketak

11. kapitulu osoaren gaia «haurra» da. Gaixotasun batzuk ikusten badira ere (neumonia, zizareak, konbultsioak, hortzen eta aginen irteera, etab.), kapitulu gehiena haurren zainketaz aritzen da: elikadura, bainuak eta ariketa fisikoak, gure herriko pilota jokua, batez ere.

Gai guzti hauen gauzarik garrantzitsuenak jarraian ikus ditzagun:

*«Esne ugaria eta sendoa, da bada umeentzat jatecoric egoquiena oraindic chiquiac diran bitartean eta eman behar zaizcate beste jatecoac ortz eta aguiñac azalduaz dijoazquioten becela, asiric esneiriñetic, eta sopa, arrautz ere ariñ, eta oen antzecoetatic aurrertuaz aragui gaucetara (...).*

*Egunero bañu bat emateac ez bacarric gorputza gogortzen eta sendotzen dute, baicic gañera eraozten dituzte larru azaleco cembait gaitz modu, eta baita ere biriquetaco catarroac (...)*

*Beste gauza bat umeen contuan eduqui bear dana, da, gorputzaren muguimentu eta ibillera. Gure paragean daucagu onetaraco usariyo bat biciro egoquia ceña dan pelota jocua, ba da jocu onec beartzen du gorputza anquetaco azcartasuna, besoetaco indarra, beguietaco alcantzua, biriquetaco zabaltasuna, biotzaren lantegui, eta janari lecu guztico muguimentuen bitartez: eta gauza oec gustiac bat batera eguiteac ematen dio gorputzari indar eta pizcortasun aiñ aundia non ez litequean aiñ bestecoric beste iñolaco bidez»*[11].

## ONDORIOA

Liburu hau irakurri eta aztertu ondoren, jendeak horrela uste ez badu ere, XIX. mende bukaeran haurrak oharkabean pasatu ez zirela esan dezakegu, Gipuzkoako mediku batzuentzat behintzat, beren lanako gairik garrantzitsuen bilakatu baitituzten haurrak.

Hau da, bada, gure ustez, orokorrean atera daitekeen ondoriorik nabarmengarriena eta garai hartako erakundeek egin zuten gomendatzearekin erabat ados gaudela esan gabe ez dugu liburu honen kritika bukatu nahi: une atseginak igaro nahiez ge-

ro, liburu honen irakurketa guztiz gomendagarria, benetan, edozein pertsonarentzat.

## BIBLIOGRAFÍA

1. Arámburu M, Bago Aguirre M. *Errico gendeentzat Osasun Legueac eta Medicantzaco Arguibideac*. Vergaran, J.L. López-en moldizteguian, 1899. urtean.
2. Urkia Etxabe JM. *Cien años de Medicina en Gipuzkoa 1899-1999*. Kutxa Fundazioa. Donostia-San Sebastián 1999. pp. 22, 23 y 33.
3. Aramburu M. Historia clínica. *Boletín del Colegio de Médicos de la provincia de Guipúzcoa* 1900; **2**(10):266-269.
4. Gerendain N, Subeldia R. Acuerdo adoptado por la Exma. Diputación de Guipúzcoa acerca del «Manual de Higiene y Medicina Popular». En: Arámburu M, Bago Aguirre M. *Manual de Higiene y Medicina Popular*. Vergara, Imp. y encuadernación de J.L. López, 1899. p. IX.
5. Celaya JJ, Gaiztarro H, Muñagorri R, Acha T, Mayora J, Azcoaga V, Zalagüeta M. Informe acerca del Manual de Higiene y Medicina Popular, emitido por la Comisión Médica de la Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País. En: Arámburu M, Bago Aguirre M. *Manual de Higiene y Medicina Popular*. op. cit. pp. XI-XVIII.
6. Echegaray C. Prólogo. En: Arámburu M, Bago Aguirre M. *Manual de Higiene y Medicina Popular*. op. cit. pp. XXI-XXXIV.
7. «Manual de Higiene y Medicina Popular». *Boletín del Colegio de Médicos de la provincia de Guipúzcoa* 1899;**1**(2):54.
8. Arámburu M, Bago Aguirre M. *Manual de Higiene y Medicina Popular*. op. cit. p. 283
9. Ibidem, p. 284.
10. Ibidem, p. 236.
11. Ibidem, p. 297-298.